



Enara Martin
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Sarrera	2
Chuck Palahniuk	2
<i>Borroka kluba</i>	
Kokapena	3
Gaia	3
Argumentua	3
Pertsonaiak	4
Gertakizun nagusiak	5
Egituraketa	6
Baliabideak	6
Iritzia	7
Bibliografia - Webgrafia	9

Sarrera

Borroka kluba Chuck Palahniukek argitaratu zuen lehenengo nobela da. 1999an zinemetara eramane zen David Fincherren eskutik. Oso ospetsua bihurtu zenez, herri kulturaren fenomeno bat izatera ailegatu da.

Nobelak Bizitza, umore beltzez beteriko ikuspegi lotsagabe bat eskaintzen du eta bertan baztertuta dauden pertsonen multzo batek gizartea jotzea erabakitzen dute (literalki beti), hipokrita, berekoi eta materialista den gizartea. Eleberri hau zikina, zakarra eta bortitza katalogatu izan da, baina liburuak izandako oihartzuna ezin da ukatu.

Chuck Palahniuk

Charles Michael Chuck Palahniuk estatubatuar nobelista satirikoa eta kazetari independentea da. Bere saritutako nobela *Borroka Kluba*-gatik famatua da, geroxeago David Fincherrek zinemerako egokitu zuena. Bere obrek X Generazioaren idazle garrantzitsuenetarikoa bihurtu dute.



Palahniuk-eko obrek ezaugarri bereizgarriak dituzte. Pertsonaiak gizartetik baztertu diren edo bizitzeko modu desberdinak dituzten pertsonak dira, eta sarritan agresibitate autosuntsigarriarekin erreakzionatzen dute. Kontaketa hauen bitartez, sozietatearen gaurko arazoak, materialismoa bezalakoak, transmititzen saiatzen da.

Kokapena

Estatu Batuetan “bilera liburuak” arrakasta zutenean Chuck Palahniuk historia berezi hau argitaratu zuen. Liburu haiek emakumeen taldeen bilerei buruz ziharduten, non sekretuak eta problemak kontatzen zituzten. Han adiskidetasunaren, familiaren eta zorientasunaren mezu positiboak transmititzen ziren.

Idazlea konturatu zen gizonezkoak ahaztuta zeudela genero horretan. Eurek ere ezinegonak bazituztela eta frustrazioetatik liberatzeko modu bat ere behar zutela, hain zuzen ere. Orduan, Zergatik inork ez zuen liburu bat idatzi? Momentu horretan zerbait sortzen hasi zen egilearen buruan. Argumentua antzekoa izango zen, gizon ezezagunen arteko talde bilerak, egun eta leku berberetan, beren bizitzen ohituretatik aldentzekoak eginak, baina desberdintasun txiki batekin. Emakumeak ez bezala, beraien problemak konpontzeko, ez zituzten sentimenduak espresatuko baizik eta ukabilekin. Besterik ez. Horrela sortu zuen *Borroka Kluba*.

Gaia

Kontsumismoaren eta maskulinizazioaren ereduaren aldaketen kritika da. Kontalariak ezin du zorientasuna aurkitu. Hori lortzeko argiztapen bidea igarotzen du non lehenengoz bere gurasoak hil behar ditu, ondoren bere jainkoa eta, azkenik, irakaslea.

Argumentua

Asteburu guztietan, soto eta aparkamenduetan, herrialde osoan, bulegari gazteek oinetakoak eta alkandorak kentzen dituzte beraien artean borrokatzeko. Astelehenetan bulegoetara itzultzen dira ubeldurekin, haginaren bat gutxiagorekin eta ahalguztiaren sentimendurekin. Ezkutuko bilera hauek Tyler Durdenren planaren parte dira,

kontsumismoarekin gaixo dagoen sozietateari mendeku hartzeko asmoa du.

Hala ere, argumentua dirudiena baino konplexuagoa da, batez ere, Tyler Durderen pertsonaiagatik. Kontalariaren bizitza ordenatuaren eskema guztiak apurtzeko gizon misterioitsua agertzen da. Erljio berri baten profeta balitz bezala, Tylerrek lezio baliotsu batzuk eskaintzen dizkio, uste sendoak hausnartzera eramango dutenak.

Pertsonaiak

Kontalaria. Eleberriko protagonista, zeinen izena inoiz aipatzen ez dena, segur aski eguneroko pertsonaia bat bezalako delad adierazteko. insomnia jasanez hasten da istorioan, eta laguntza taldeetara joaten hasten da haietan negar egin ondoren gauetan lo egitea lortzeko (itxurak aipaturiko gaixotasunez hiltzen ari delad eginez). Haiengana joateari uzten du, Tyler Durden-en ondoan, borroka kluba sortzen duenean, bere insomnia tratatzeko metodoa bezala hain zuzen ere. Protagonistaren buruko ezegonkortasunak eta bere portaera bortitzak antiheroi eredu on bat eratzen dute. Palahniuken protagonisten eredu bezala ikus dezakegu pertsonai hau, bere portaera desegokia partekatzen baitute.

Tyler Durden. Kultura kontsumistarako gorroto sendoarekiko pertsonai bat da. Bere karaktereagatik, arazoak eragiten dituen konpainiako hainbat gau-lanetan aritzen da. Borroka-klubaren kofundatzailea da. Geroago Triskantza Proiektua sortzen du, hura bera eta gainerako kideak kontsumismoaren aurkako eraso desberdinak egiteko helburuaz. Tyler antiheroi bat bezala hartuko dezakegu (hura eta kontalaria bereziki teknikoki pertsona baitira), nahiz eta aurrerago istorioan eleberriko antagonista bihurtu. Tyler Durden pertsonaia konplexu eta hauslea da. Mezu filosofikoko sakon baten eramailea. Bere ikuspegitik gure denborako sozietatearen hiri-bizimodurako kritikak atera daitezke.

Marla Singer. Kontalariak laguntza-taldeetara doanean Marla ezagutzen du. Kontalariak Marlaren iruzurra nabaritzen duenean,

taldeek lehenago zuten efektu bera sentitzeari uzten dio. Taldeak utzi ondoren, Marla-k Tyler ezagutzen duenean berriro aurkitzen dira eta bere amorante bihurtzen da. Palahniuk-eko protagonista maskulinoa den ondoko eleberrietan, Marla-ren antzeko pertsonaia femeninoa ere agertzen da. Pertsonaia femenino hauek gai erromantikoak bere eleberriei gehitzen lagundu diote Palahniuk-i.

Robert Bob Paulson. Kontalariak euskarri-taldean barrabil-minbizi gaixoentzat ezagutzen duen gizona da. Culturista ohia, Bob-ek bere testikuluak galdu zituen. Kontalaria Bob-en lagun egiten da eta, laguntza-taldeak utzi ondoren, borroka-klubean berriro ere aurkitzen du. Aurrerago gertatzen den Bob-en heriotzak kontalaria Tyler-en kontra itzul dadila eragiten du.

Gertakizun nagusiak

- Hegazkin batetik jaitsi eta etxera itzultzean, bere apartamentua leherketa susmagarria baten ondorioz suntsituta gelditu dela ikusten du. Inora joateko egoera horretan, Tylerri deitzea erabakitzen du, taberna batera joatera gonbidatzen duena. Tabernatik ateratzean Tylerrek bere etxean geratzeko eskaintzen dio eta ustekabean, berari jotzeko eskatzen dio, borroka bat gustuz hasiz.
- Elkarrekiko bizitza gainbehera doa Marla Tylerrekin harremanetan hasten denean, gizon biak aldentuz eta Tyler klubekiko gaiekin isilkor izatera eramaten duena. Hain da aldaketa sakona triskantza proiektua hasten duela narratzaileari esan gabe.
- Protagonistak klubeko kide bat hiltzeko zorian egon ondoren Tyler desagertzen da. Protagonistak Tyler bilatzeko nahian estatu osotik bidaiatzen du. Bidaietan, Tylerrek triskantza proiektuaren eraginkortasuna handitzeko hiri askotan klub sukurtsalak fundatu dituela antzematen du.

- Bidai batzuetan jendeak Tyler Durden bezala ezagutzen duela konturatu ondoren, amets batean, Tylerrek errebelatzen dio, gure protagonista Tyler Durden bera zela, berak sortu zuela egingo zituen ekintzen erantzulea ez izateko.
- Hirira itzultzean triskantza proiektua geldiarazten saiatzen da, horretarako pertsonalitate biak borrokan hasiko dira. Bere burua hiltzea erabakitzen du Tyler akabatzeko.

Egituraketa

Nobelan irudi erretorikorik ez dago, xumea eta urria da adjektiboei dagokienez; pertsonaien bizitza grisa islatzen da eszenatoki kaskar eta hutsalean.

Palahniukek esaldi laburrak eta elkarrizketa ugari idazten ditu, hori dena ironiaz eta umore beltzez josita. Bere pertsonaiak marjinalak dira, arlo afektiboan zein sozialean, gaur eguneko bizitza estiloarekin talka egiten duten giza-semeak.

Lehenengo pertsonan idatzita dago. Jauzi kronologiko eta kokapen ugari agertzen dira nobelan zehar, honek itxura ulergaitza ematen dio. Argumentua dualismoan oinarrituta dago: bizitza-heriotza, osasuna-gaixotasuna, ona-gaizkia, askatasuna-bortizkeria, maitasuna-sexua, errealitatea-fikzioa, salbamena-galmena, arrakasta-frustrazioa.

Baliabideak

- Biolentzia azalean dago, nahiz eta biolentzia ekintzarik idatzirik ez egon. “Nire masailean dudan eta ipurtzulo baten itxurakoa den zuloko izkinek zakur baten hortz-oien kolore ubel beltzarana daukate.”
- Narratzaileak “ipurtzuloa garbitu monalisarekin” nahi duela adierazten du eta gauza bera esaten du beranduago borroka klubean

batzen den mekanikariak. Baieztapen honek kaoserako grina adierazten du, geroxeago “zerbait ederra suntsitzeko” gogoarekin berriro erakusten du. Calgaryko Unibertsitateko ikertzaile literarioa den Paul Kennetek teoria hau mantentzen du: Kaoserako desio hori Edipo konplexuaren adierazlea da, izan ere hiru pertsonaiek (narradorea, Tyler eta mekanikaria) gurasoekiko mespretxua erakusten dute.

- Joe izeneko gizon baten organoen ikuspuntutik idatzitako istorioak irakurri ondoren, narratzailea estilo berean idazten hasten da. Baina organoen orde, sentimenduak edo bere bizitzako gertakariak aipatzen ditu.
- Narratzaileak askotan “Hau badakit Tylerrek badakielako” esaten du, esaldi horrek aurrerago kontakizunak emango duen bueltarako prestatzen gaitu, izan ere amaieran Tyler eta narratzailea pertsona bera direla jakingo dugu.

Iritzia

Nobela irakurtzen hasi bezain laster gustukoa izango dela antzematen da. Ikertu ondoren, aurkitutako baliabideen bidez, idazlearen gaitasuna ikusten da. Palahniukek interesgarria eta diferentea den nobela bat egitea lortu du.

Idazleak erabilitako baliabideak askotakoak dira, baina gehien nabarmentzen dena protagonistaren aurkakoa den pertsonaia da, Tyler. Tyler narratzailearen *Alter Ego*-a da, pertsona baten bigarren izaera, gaur egungo Dr. Jekyll eta Mr. Hyde-ren irudikapena, Miley Stewarten eta Hannah Montanaren idazkia, Clark Kent eta Supermanen gainbotere ezako istorioa. Izaera bikoitza hauen adibideak antzemanda *alter ego*-aren erabilera irakurlea entretenituta mantentzeko baliabide eraginkorra dela ukazina da.

Obra honek sozietateari egiten dion kritika antzematea erraza da. Gizarte kapitalista eta ondorioz materialista izatearen ikuspuntuak gure begiak irekitzera eramaten gaitu eta obra honek damaigun gogoeta zabala da “gorrotatzen ditugun enpleguak ditugu behar ez dugun kaka erosteko”.

Triskantza proiektuan parte hartu baino lehen tximinoek izandako bizitzak triskantza proiektuaren amaieran dutenaren oso antzekoak dira. Lehenengoak materialismoak bultzatuta eta bigarrenak suntsiketak. Ondorioz, Kapitalismoari egindako soluzioa hasieran ez eraginkorra dela esan dezakegu. Obran gizartearen aldaketaren hasierako prozesua bakarrik ikusten denez, amaieran pertsonen rola kenduta egongo direla aurrean dezakegu. Bestela, ez legoke bi bizimoduen arteko desberdintasunik.

Esandakoa kontuan hartuta eta kontraesanak alde batera utzita, hainbat sententzio sorrarazten dituen nobela aparta dela ondoriozta daiteke, irakurtzea benetan merezi duten horietakoa.

Bibliografia

Borroka kluba, Chuck Palahniuk. Txalaparta.

Webgrafia

- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/borroka-kluba/borroka-kluba.pdf>
- <http://cronicas-errantes.blogspot.com.es/2013/08/el-club-de-la-lucha-chuck-palahniuk.html>
- <http://www.cinebso.net/2013/12/libros-de-cine-el-club-de-la-lucha.html>
- [http://es.wikipedia.org/wiki/Fight_Club_\(novela\)](http://es.wikipedia.org/wiki/Fight_Club_(novela))
- <http://lacuartapared2012.blogspot.com.es/2012/09/el-club-de-la-pelea-argumento.html>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/borroka-kluba/borroka-kluba.jpg>